

SARIAREN ARAUAK



“Café Bar Bilbao”

**Teatro Laburreko Saria
Premio Teatro Breve**

2017

"Kafe Bar Bilbao"

Teatro Laburreko gidoien lehiaketa

KAFE BAR BILBAO-k,
TARTEAN teatroak lagunduta,

"Kafe Bar Bilbao"
Teatro Laburreko Gidoien Saria

antolatzen du eta lehiaketaren 15. ediziorako deia egiten du.

HIRU SARI: Bat Euskarazkoa, beste bat Erderazkoa eta, 15. edizio honetan, **Sari Berezi bat gure lagun eta lankidea den Patxo Telleria-ri** bere urtetako lanagatik euskal dramaturgian eta, konkretuki, **"Tabernaria: Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña"** teatro laburreko idazlanagatik.

Aurreneko bi sariak lehiatzeko arauak:

1.- Kafe-teatrorako edo **formato txikiko antzerki-lanetarako gidoiak** aurkeztuko dira. "Formato txikia"-k zera esan nahi du, lanaren beharrianak (teknikoak edo artistikoak) txikiak direla eta bere ekoizpena eta banaketa "erreza" izan daitekela. Lanaren luzera 30 minututako antzezlan bati dagokiona izango da, gutxi gorabegera.

2.- Modalitate bi egongo dira: **euskarazkoa eta gaztelaniazkoa**. Gidoi modalitate bakarrera aurkeztu daiteke obra bakoitza. Erderazko lanen egileek Euskal Erkidego edo Nafarroakoak izan beharko dute.

3.- Saria **750 €** (zergak baino lehen) izango da. Modalitate bietan, bai eta Sari Berezian ere.

Antzezlanak Kafe Bar Bilbao aren webean publikatuko dira bai eta liburu batean ere, beste urtetako lan sarituekin batera. TARTEAN teatroak lan hauen irakurketa dramatizatua antolatuko du. Kafe Bar Bilbao harremanetan dago Pabeiloi 6 Bilboko antzokiarekin, saritutako lan baten ekoizpena lagundu eta bertako Antzerki Laburraren Festibalean aurkeztua izan dadin.

4.- **Gidoiak jatorrizkoak**, antzeztu gabeak, argitaratu gabeak eta aurretik beste lehiaketaren batean saritu gabeak izango dira. Beste lanen batetik egindako itzulpenak edo moldaketak ez dira jatorrizkotzat joko.

5.- Gidoiak emailaz bidaliko dira Kafe Bar Bilbao-ra:

info@bilbao-cafebar.com

2017ko Abenduaren 31 (barne) bitartean.

Bi fitxategi, holan izendatuta: X-testua y X-datuak (X = antzezlanaren izenburua)

X-testua fitxategian, **Gidoia** joango da, egilea identifikatu barik.

X-datuak fitxategian **egilearen datuak**: Izen-abizenak, bizilekua, telefono zenbakia...

Horrez gain **gutun bat** bidaliko da Kafe Bar Bilbao-ra.....

Kafe Bar Bilbao - Plaza Berria, 6 - 48005 Bilbao

..... eta bertan **NANaren fotokopia** bat eta **Zinpeko aitortpena**, sinatuta, zera adierazten: “gidoia jatorrizkoa eta argitaratu gabea dela, ez dela beste lan batetik moldatua edo antzeturiko lan batena, ez dela izan beste lehiaketaren batean saritua eta ez dela itzulpena”.

6.- Epaimahaiak kontuan hartuko du lanaren kalitatea (teatrala, literaturarena...) eta **antzezgarritasuna**; hau da, lehenengo arauan apaitutako formato txikiko antzerki–lanetarako gidoia izatea.

7.- **Epaimahaiak ahalmen guztia** edukiko du sariak emateko edo eman barik uzteko, hala balegokio. Arauok interpretatu ahal izango ditu beharrezkoa balitz, baita epaimahaikoen jardun–arauak finkatu ere. Epaimahaikoen erabakia apelaezina da.

8.- Saritutako lanen **eskubideak egilearenak** izango dira betiere, baina Kafe Bar Bilbaok baimena izango du lana bere webean publikatzeko edo liburu batean argitaratzeko, bai eta irakurketa dramatizatu bat antolatzeke (TARTEAN teatroa).

9.- Edozelan ere, saritutako lanak argitaratu edo antzetzeko balira, Kafe Bibaok esku hartu barik ere, publizitaterako euskarri grafiko eta ikus-entzunezko guztietan **sari hau jaso duela aipatu** beharko da.

10.- Lehiaketa honetan parte hartzeak arauok osorik onartzen direla esan nahi du.